

Mamu izoztua – Bidaia izotzerantz

Euskal mamua hondartzan agertu zitzaidan, Malaga ondoan. Hondar gainean liburu hau irakurtzen ari nintzela, irudipena nuen, guztiz ez ulertu arren, niretzat egina zegoela. Eleberri bat, aldi berean lehena, oraina eta geroan kontatua, izotzak hartutako gizonezko erizain batez ziharduena... Europatik ihes egindako iraultzaile batez, orain Nikaraguako kostalde atlantikoan bizi zena, banana eta palmondo sailen artean, Bluefields alboan.

Etxera itzuli ahal izateko zain zegoena.

*Lagun izoztua.*¹

Nahiz eta euskararen ezagutza mugatua nuen eta hala hitz nola deklinabide zein aditz-jokoekin estropezuka nenbilen, eleberrian nabarmen hurbilekoa gertatzen zitzaidan dena: euri-jasa etxola umeleko uralitazko teilatu gainean, haurrak ibai ondoan oinutsik korrika, tiburoi baten bizkarreko hegatsa laku bateko ur azala ebakitzen, ilargiaren jabegoa ematen duen ur ispiluan. Erizaina ez zegoen, liburuaren izenburuak zioen bezala, literalki “izoztua”, tristurak zurrunduta baizik. Mututasunak eta nostalgiak hautsita. Maribel laguna, bera ere erbesteratua, Managuatik abiatzen zen erizainari bisita egitera. Berak erabakitzen zuen “lagun izoztua” eramatea Ekuadorren bizi zen haurtzaroko lagun batengana, erizainaren arima gainean hormaturiko izotza desegin ahal izateko itxaropenarekin. Baina, harako bidean, denbora laburrez militarrek gerarazten zituzten, eta berriro kamuflatu behar zuten. Gizon baten etxean ezkututzen ziren, bera ere, haiek bezala, iheslari izandakoa. Duela 50 urte.

Eleberriaren gertalekuak eta egoerak harrigarriro hurbilak egiten zitzaizkidan.

¹Joseba Sarrionandia: *Lagun izoztua*, Elkarlanean, 2001. Edizio alemana: *Der gefrorene Mann*, Blumenbar-Verlag, 2007 (Itzultzaileak: Petra Elser eta Raul Zelik). 1980an Joseba Sarrionandiari (Iurreta, 1958) urte askotako espetxe zigorra ezarri zioten ETAKide izatearen akusaziopean. 1985ean ihesaldi sonatu baten protagonista izan zen, eta 2016 arte klandestinitatean bizi izan da.

Jarraian, alabaina, hori guztia argitzen zuena ahotsak zirela iruditzen zitzaidan. Nik ere ez al nuen beti nahi izan pixka bat bera bezala izan: idazten zuen iraultzaile bat, idazle iraultzaile bat? Norberaren bizitza eta aldi berean mundua aldatu nahi zuen norbait... behin eta berriz porrot egin arren?

Ez nituen aintzat hartu ezezagunak zitzaizkidan hitzak eta konjugazioak; horren ordeztan, nire buruari utzi nion beste oroitzapen batzuetara lerratzen: euri tropikala, Barranquilla inguruko herrixken lehortea, militarren eta beren soldatapeko hiltzaile paramilitarren aurrean edonortaz jabetzen zen izua. Baina, batez ere, nostalgiari errenditu nintzaion. Izan ere, idazle iheslaria ez bezala erbestean inoiz ez izanagatik ere, berehala ulertu nuen Kalaportuz gogoratzen zen kontatzailearen mina, Kalaportu sortu zuenarena, Mutrikuz, Ondarroaz eta beren haurtzaroz gogoratu ahal izateko. Okerrena zen irudi horiek ez zirela barreiatzen, baizik eta, erbesteak behartutako bereizketagatik, gero eta tematiagoak zirela. Alegiazko min progresiboa. Kontatzailearentzat, horrela sumatzen nuen, haurtzaroko irudiak, zenbat eta denbora-espazioan urrunago egon jatorria zuten lekua, hainbat biziagoak ziren.

Eta hori guztia nire parte bat balitz bezala sentitzen nuenez, pentsatzen nuen kartzelatik ihesi eta desagertua zegoen idazleak bere ahotsa altxatuko zuela neure barnean.

Horrengatik, harritu ere ez nintzen asko egin nire semea, artean haur bat, nire eta gure toalla zabalduaren aurrean agertu zenean, botila bat eskuan zuela. Semeak beldur handia zien olatuei, eta garai hartan bakanetan hurbiltzen zen itsas ertzera. Dena den, goiz hartan ausartu zen uretan pauso batzuk ematera, ziur asko urak hara eramanez eta orain luzatzen zidan botilak bere jakin-mina piztu zuelako. Botila gasolio zikineko geruza mehe batez estalia bazen ere, berehala jabetu nintzen ez zegoela hutsik. Semeak, nire ondoan kokoriko, jada jakinaren gainean zegoen zer izan zitekeen: seguru ordurako

behin baino gehiagotan altxorrek lurpetik atereak eta botilatan harrapaturiko jenio mezularien istorioak ezagunak zituela. Begirada zorrotzaz hertsatu ninduen guri bidalitako mezua ateratzera.

Ez zitzaidan erraza gertatu botila irekitzea, kortxoaz itxita ez ezik, lakrez zigilatuta ere baitzegoen. Eta, azkenean itxitura erauzi nuenean, hurrengo arazoaren aurrean geunden: kristalaren barruan zegoen paketea ez zen botilaren lepotik pasatzen. Poztu egin nintzen semea oraindik zaharxeago ez izateaz; izan ere, hura bizpahiru urte geroago gertatuz gero, ordukoxe galderaz josiko nindukeen eta onartu beharko niokeen gure eskuetan geneukana ezinezkoa zela: botila barruan plastikoz bildutako fardeltxo bat zegoen; niretzat, ordea, ulertezina zen nola sartu izan zuten han barruan. Behin edo behin ikusita neukan, jakina, egurrezko itsasontzi txikiak nola muntatzen ziren, baina kasu honetan ezin zen horrela izan. Antza zuen, botila fardelaren inguruan puztuz egin balute bezala. Mezua eskuratzeko bide bakarra botila haustea zen. Ni zalantzan nengoen, baina semea tematu egin zitzaidan: altxorraren mapa aurkitu nahi zuen edo, behintzat, jenioa bizitzara iratzarri.

Gauzak horrela, bi harri handi bilatu, haien artean botila finkatu, eta pixka bat aldendu ginen. Lau aldiz jaurti eta gero, azkenean autsi egin zen beira. Zatiak baztertu eta fardeltxoa eskuan hartu genuen. Semeak bazuen jenioaren indarraren berri, eta ikaragarria egiten zitzaion. Baina lasaitu egin nuen eta, fardelaren inguruko plastikozko bilgarria urratzen nuen bitartean, argitu nion botilako iratxo hark seguru gauza onak ekarriko zizkigula: urrutiko eragin espektral baten bidez sentitzen nintzen haren sortzaileari lotuta. Eta azkenik edukia eskuetan jaso genuen. Semeak zapuztu samar zirudien, mezua ez zelako pergamino biribilkatu bat, pendrive zahar bat baizik, atzealdean marraztuta M txiki txuri bat zuena.

M, alias Joseba.

Zortea izan genuen. Ordu erdi bat geroago hondartza gaineko gure etxetxoan pendrivea ordenagailuan sartu nuenean, pasahitza eskatu zigun. Nik kantu lerro bat erabili nahi nuen pasahitz modura, *Maitasunaren kariaz hainbeste eman zuten*, hain zuzen, zeinaz gerora pentsatu bainuen desagertua zegoen idazleari erreferentzia egiten ziola; semeak, berriz, bere katu oso kutunaren izena erabiltzea proposatu zuen. Ezin dut ziur esan bi pasahitzetako zein izan zen jenioa bere kartzelatik askatu zuena. Egun, biak izan zirela iruditzen zait. Gauza ziur bakarra da iratxoa pendrivetik irten zela, adiskide gisa agurtu gintuela eta bere edukia, altxor mapa baten ordeztu, hiri urrun baterako bidai gonbidapen bat izan zela. Hiriaren kokapena zehaztu gabe zegoen. Zehaztu gabe egon behar zuen.

Orain, ordea, ni nintzen zeharo nahastuta zegoena, begi bistakoa baitzen gertaera ezberdinak denbora berean edo hurrenkera kronologiko faltsu batean jazoak zirela: botilako mezua seguru asko luzaro ibili izan zen nora gabe itsasoan, baina idatzi eta barruan itxi aldi berean egin behar izan zuten, guk orduan sei aste zituen gure katuari izena jarri *ondoren*. Liburu irakurri berria itzultzeko hitzarmena ez nuen argitaletxearekin itxiko hilabete batzuk geroago arte, ni Alemaniara itzuli ostean. Kartzelatik ihes egindako idazlearen gonbidapenak, jenioak eskura jarri zidanak, erbesteko leku zehaztugabe batean hari bisita egiteko, bestalde, balio behar zuen eleberriaren itzulpenari buruzko zalantzak argitzeko. Nola izan zitekeen, neure buruari galdetzen nion, puntu kronologiko ezberdinetan ordenaturiko gertaerek elkarren arteko kausazko lotura izatea? Edo ondorioa kausaren aurretik azaltzea? Hala ere, galderak alde batera utzi nituen, botilako mezuaren igorlea sasia bizi zelako, muturreko ziurgabetasun egoera batean, eta ez zitzaidan egokia iruditu nik jakin nahiko nukeen

guztia galdetzea.

Egun batzuk geroago, semea eta biok Mediterraneoko oporretatik Berlin aldera itzuli ginen, eta laster heldu nion lanari. Lehenik eta behin, hobeto ezagutu behar nuen hizkuntza, zeinaren konjugazio taula korapilatsuek bertako hiztunak ere etsiarazten baitituzte noizbehinka. Hortaz, ordura arte ez zegoenez euskara-alemana hiztegirik, nik ezagaturik behintzat, Euskara-Gaztelania hiztegi bat hartu nuen lanerako oinarri gisa. Eta berehala ohartu nintzen lagun izoztuaren eta narratzailearen bizitzako ziurtasun ezak zer nolako eragina zuen itzultze lanean. Hala ere, itzulpenaren ziurgabetasunak, ihesarenak ez bezala, betebeharra baino gehiago askatasuna ematen zuen. Dena lurralde berria zen. Oso gutxi ziren lehenago euskaratik alemanera zuzenean eramandako esaldiak. Oso gutxi, kidetasun finkatua zuten hitzak. Esanahia, lengoaiaren teorian esaten den bezala, diferentzian oinarritzen da. Hau da, zeinuek beste zeinuen arteko bereizketaren bidez bereganatzen dute beren adiera, nahiz eta hizkuntz komunitate bakoitzean bereizketaren muga-lerroa ezberdina izan. Zenbateko tenperaturatik gora ez da ura “epel”, “bero” baizik? Zenbateko bolumena behar da “ozen” mintzatzetik “oihu” egitera pasatzeko? Eta zer gertatzen da hizkuntza batek literaturaren bidez modelatzen dituen ñabardurekin? Egia esan, eguneroko erabileran ez da hain garrantzitsua baten bat “abian” edo “ibilian” doan. Hitzak eta adierak zehaztuz doaz gehien bat idazketa, irakurketa eta gogoetaren bidez. Alderdi askotarik euskara oraindik zabalik zegoela iruditzen zitzaidan, baita bertako hiztunentzat ere. Segurua zen, behintzat, horrek balio zuela alemanera aldatzerakoan. Epel: *warm* edo *lau*? ... Urdin: *grau* edo *blau*?... Xirimiri: *Dunst* edo *Nieselregen*?

Betiko leloa da itzulpenak egokitzapenak direla esatea. Horrek, dena den, bereziki euskaratik eginiko itzulpenetarako balio du. Dena birpentsatu zitekeen, birpentsatu behar zen. *Segalaria* benetan “*Schnitter*” al zen, edo gutxienez esaldi batean zirriboratu behar al zen egoeraren funtsa? Alemanez *Schnitter* hitzak ezer baino lehen herio dakar burura, Erdi Aroko irudi bat, segaz bere biktimaren bila doana. Interneteko foroetan gotiko- eta *new wave*-zaleek gogoko dute beren buruei *Schnitter* deitzea, agonia irudikatu nahi dutenean. Euskal Herriko baserri batean uda eman dugunontzat, ordea, *segalaria* errealitate guztiz arrunta da, hainbat eta hainbat irudi eta inpresiori lotuta: airean belar ondu usaina zegoen, Aralarko Mailoetara begira geunden, laster hastekoak ziren Leitzako jaiez edo manifestazio batez mintzatzen ginen, norbaitek —txapel eta alkandora laukidunarekiko osaba zahar hortz gabeak edo intsumisoen kamisetarekiko gazteetako batek— mendi mazela malkarrenetan belarra segaz mozten zuen bitartean.

Kontzeptu eta zeinu askok, hizkuntz eremuen arabera, esanahi ezberdinak dituzte. Nola adierazi zitezkeen, literatura kontuetan hain hilgarria den perifrasiari erori gabe?

Baina itzulpenak, ikuspegi askoz sinpleago batez, lurralde berrietara ere bazeraman. *Lagun izoztua* itsasoaz eta nabigazioaz mintzo zen; hortaz, marinelen hizkeraz zerbait ikertu behar izan genuen. “Genuen” diot, zeren nire aurkikuntza-bidaia zorionez beste itzultzaile batenarekin gurutzatu zen. Petra Elserri ere botilako mezu baten antzera heldu zitzaion *Lagun izoztua*, eta, nahiz bere sarbidea literaturan nirea bezalakoa ez izan, bere sarbidea euskaldunagoa baitzen, antzeko zerbait gertatu zitzaion: jarraitu nahi zion eleberri honen atzean ezkutatzen zen, sortu zuen, eleberria bera zen mamuari.

Paraleloan hasi ginen lanean, eta, nahiz gure idazmahaien artean 2.000 km urrun egon eta bakanetan baino ez genuen zuzenean hitz egin ahal izan nahitaez sortzen

zitzaizkigun iritzi ezberdinak argitzeko —haserre txikiren bat ere izan genuen, batzuetan gure ikuspuntuak ez baitzetozen bat—, oso ondo elkar hartu genuen. Petrak hitzen esanahien inguruko kontu labainak ikertzen zituen, baita nabegazio edo euskalkien ñabarduren ingurukoak ere; ni testu alemanari egokituko zitzaion tonu baten atzetik nenbilen. Ia testu osoa bikoiztu genuen, eta gero esaldiz esaldi, hitzez hitz alderatu, hartara ikusteko zein izan zitekeen irtenbiderik zuzenena, baina ederrena ere bai. Nobela berri bat idatzi genuen... sei eskutara: autore desagertuak, geroko euskara irakasleak eta nik.

Eta zenbat gauzaz ez nuen gogoeta egin nuen berriro, edo estreinako aldiz: zer kolore du Hego Atlantikoko urak, eguzkiak izozmendien aurrean ur gardenetan jotzen duenean? Anbar kolorea ote? Urdin azura? Zafiroa? Urdinabarra? Nolakoa da izotz labarren distira, zein jarreratan mugitzen dira ostertzerantz, korronte epelagoetan urtu baino lehen? Eta zein latituderaino iristen dira beren bidai alderraietan? Zertaz idazten du Lévi-Straussek bere *Tropiko tristek* liburuan? Ba al du arrazoirik kultura “beroen” eta “hotzen” beren definizioarekin? *Esclaves, ne maudissons pas la vie...* Horrekin zer esan nahi zuen Rimbaudek? Rimbaud... zelako desio eroa, basatia! Nolakoa izan zen bere harreman homosexuala Verlainerekin, noiz izan zen deskubritua poeta bezala, nola bizi izan zuen azkenean lurpera eramane minbizia?

Eta areago: Zer zegoen ‘heteronomia’ kontzeptuaren atzean? Autoreak Foucaultengandik hartu zuen maileguan? Eta eleberrian agertzen diren aipamenak: Conrad, Heidegger, Melville, Benjamin, Salinger, Fassbinder eta beste? Testu horiek guztiak irakurri nituen behingoan, aipatutako filmak ikusi, agertzen ziren lekuen argazkiei begiratu. Itzultzaileak jarraitzen dio bere narratzaileari, zeina mamu bat bezala erdizka agertzen baita. Itzultzailea orpoz orpo darraio, saiatzen da atotian pentsatzen eta autorearen ulertzen, agian, hark bere burua ulertu duen baino hobeto. Itzultzaileak

deskubritu nahi du mamuari, idazleari, akatsik itzuri ote zaion. Eta itzultzailea ohartzen da, bere perspektibatik, egile bakoitza errealitatean iheslari bat dela. Izan ere, egileak testu bat sortu eta aurrera egiten du; itzultzaileak, ordea, harrian zizelkaturiko obraren aurrean paratu eta geratu denari begiratzen dio.

Esaldi bakoitzari bueltak eman genizkion. Aztarnategi bateko harriei bezala. Gure mamua ezagutu nahi genuen. Zer nolako bizimodua zeraman. Bere liburuaren, bere lanaren historia ulertu, baita bere ihesarena ere.

Eta horrela, azkenean ekin nion hilabete batzuk lehenago jenioak gonbidatutako bidaiari. Ibilbide luze eta zaila izan zen, mundu zehaztugabe batean barrena. Erosi nuen hegazkin txartel bat, ez interneten, bidai agentzia batean baizik, aztarna gutxiago uzteko; zenbatu nituen irteteko falta ziren egunak, eta gero, egun batean goizean goiz, abiatu egin nintzen. Ordu asko eman nituen lurralde oso urrun baterantz hegan, hiriraino autobusa hartu, gero metroa, baso sarri bat zeharkatu, arropa aldatu, baten bat atzetik ote zetorkidan egiaztatu, eta mendilerroaren beste isurialderantz jaitsi nintzen. Jeep batek kostaldeko leku batera eraman ninduen, kale nagusia alde batera utzi eta isil-gordeka portu aldera joan nintzen, han arrantzale bati galdetu nion ea eramango ninduen hurrengo senaiaraino. Groenlandiako itsasertza, baso tropikal sarrien alboan. Haize hotz epel batek jotzen du mendietatik itsas aldera; eskimal batzuk, moilan eserita, beren fruta tropikalak antolatzen. Arrantzalearen txalupa olatu gainean / dotoreziaz ebakiz ispilu antzeko ura / bere bidea astiro eginez. Gogoan nituen semea, berriz haurdun zen emaztea, Rimbaud, Fassbinder, gure mamua: desagertua zegoen idazlea.

Txalupa amarratu zuenean, zorabiatuta nengoen. Eleberriko protagonista bezala,

historiako erizaina bezala, zeinak zientzialari hil-hurren bati lagundu izan zion haren Antarktidarako bidaian, haren *azkeneko* bidaian. Baina eleberriko erizaina iritsi al zen benetan zorabiatzera, edo besterik gabe irudikatu egin nuen, harekin antz handiagoa izateko, hurbilago egoteko? Bizkitartean, ez al nintzen ni neu historiako zati bat? Liburuko atal bat, pendrive bateko mezu bat, itsasora jaurtitzen dena bere hartzaileari, hura presente egon baino lehen, iritsi dakion?

Azkar aurkitu dut glaziarreko hotela, eta horrela hasi da azkenean itxaronaldia. Etzan naiz altzari urriko logelako ohean, gelan bertan ibiltzen hasi naiz alde batetik bestera beroak hotzikaraturik, liburu batzuk hartu ditut eskuan, baina ezin naiz kontzentratu, paseo etsigarri bera egin dut behin eta berriz. Giza altuerako garoen azpian, glaziarraren behealdean, solairu bakarreko etxe-orratzen artean. Ito egiten nau ahituz doan denborak eragindako asperdurak; heldu naiz, oraindik heldu gabe banago ere, eta eguna antolatzen saiatu naiz, unitatetan zatitzen, erritmo bat ematen. Hemendik ezin diot semeari deitu, ezta emazteari ere... hemendik, bi munduren arteko toki honetatik.

Egunsentian esnatu naiz, jetlag, leiho ondoan arnastu egin dut goi-mendi, basamortu, herrixka, glaziar usaina duen aire hori; gosaria zerbitzatzen duten hoteleko enplegatuekin esaldi herabetiak trukatu ditut, sentitu dut hizkuntza den aberri —aberrri habitagarri bakar— horren bakartasuna, inguruetan ibili naiz. Eta aldean daramat, zorroan, beti irrigarri samar, itzulpenaren inguruko zalantzak dituen kaiera, edozein unetan botilako mezuaren egilea ezustean kalean agertuko zaidala espero beharko banu bezala. Zenbatu egin ditut poliki igarotzen diren egunak, baina gero haiek zenbatzeari utzi diot, esan didate-eta ihesa den lurralde honetan dena zehaztugabea dela,

zehaztugabe geratu behar duela. Irudipena dut horrela, zenbatu gabe, jada ez direla igarotzen. Eta, jakina, nire buruari galdetu diot halaber zer espero dudan egiazki topaketa honetatik, zeren eta zer jakin zezakeen mamuak bere testuaz, guk aspalditik ez genekiena?

Mahai hutsekiko kafetegi bat, parkeko banku ikuspegidun bat, bide bazterrean lagatako fruta kaxa bat. Batzuetan burua sutan jartzen zait, soin adarrak sorgorturik sentitzen ditut, badirudi han urrutian izotza mugitzen dela. Zabor biltzaileak egunsentian etorri eta edukiontzi astunak etxe atarrietatik kamioira deskargatzen dituztenean, ihesaren lurraldea ziurtasunik gabeko lurralde bat dela sumatzen dut. Primeran bizi litekeen lurralde bat.

Utziko baligute.

Aberri bat, etengabe mugimenduan dabilena.

Eta gero, zenbatu gabeko zenbait egun igaro ondoren, azkenik iritsi da unea. Ostertzean, zeru eta ur, zeru eta lur, zeru eta infernu arteko lerro hartan, nora gabe igerian, ispilaturik, hara bloke zuri bat, iceberg bikoiztu bat, lebitatzen, antza. Egun, inorena ez den lurrean ez-leku bat ageri da. *Heterotopia* bat, leku guztiez kanpoko leku bat; eleberrian botilako mezuaren egileak idatzi zuen bezala, leku ez-erromantiko bat.

Paseoa alde batera utzita, gelan zain geratu naiz, sumatzen baitut denbora iritsi dela, *espektroarena*. Azkenik arratsaldean, adostutako ordua baino lehentxeago, leiho ondoan jarri naiz, balkoian, terraza bat ere izan daiteke. Pentsioaren parean, izotz kasketa ikus daiteke urrutian, betiere modu irrealean islatuta; azukrezko palazio jelatu bat antzematen da ostertzaren lerroaz goiko eta beheko aldean, aldizka.

Aurrerantz makurtuta, kalera begiratu dut. Idazlearen mamuaren azkeneko argazkia 1985ekoa da. Bizarra zeukan, eta maleziazko irribarrea. Begirada arakatzailak zuzendu dizkiot jendeari, eta nire buruari galdetu diot haietako bat izan ote litekeen

azken 22 urteetan bilatutako gizona.

Eta azkenik, agian ordu laurden bat bakarrik, agian eternitate bat beranduago, ia berrogeita hamar urteko gizon bat azaldu da izkina inguruan, eskuak galtzetako poltsikoetan hondoratuta, espaloian poliki ibilian. Oraindik urrutitxo dagoela, ia 50 metrora, iskin egin dio eguerdiko eguzki pean urtzen ari den putzu izoztu bati. Behakoa altxatu duenean, gure begiradak gurutzatu egin dira; bisaian irribarre bat antzeman zaio. Ez nago ziur: gizonak jakaren lepoa altxatu du eta gero kolpetik albo batera jiratu da denda batean sartzeko. Eta leiho ondoan nagoen tokitik, balkoitik, terraza ere izan daiteke, ikusi dut, dendako erakusleihoaren beiretan zehar, zelan erosi dituen egunkari bat, folio sorta bat, agian gozopilak ere bai.

Raul Zelik